



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2016/10/14

Foru Aldundiak gizarteratzerako laguntzen erdia gastau dau irailaren 30erako

Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Foru Diputatu Bizkaiko Batzar Nagusien aurrera etorri da gaur goizean, PP taldeak eskatuta, aurton gizarte inklusinora bideratu diran laguntza ekonomikoen barri emoteko, eta baita etxe bako pertsoneri zuzenduta dagon Habitat Bizkaia programearen barri emoteko be, oraingo honetan Talde Mistoak eskatuta.

Laespadak iragarri dauenez, bere sailak gizarte bazterketaren kontra burruka egiteko laguntza ekonomikoak emotera zuzendutako aurrekontuaren “%49,41” gastau dau daborduko, urte osorako aurrekusi ziran “586.118,31” euroetatik. Kopuru horrek erakusten dauenez, holango laguntzek 2012tik erakusten daben beherako joereagaz jarraitzen dabe, eta aldaketa horren zergaiti “nagusia”, laguntzak jasoten dituen pertsonen “soslaiaren aldaketea” da.

Laespadak azaldu dauen moduan, RGI izenekoagaz bateragarriak ez diran laguntza horreek, oinarriko beharrakaz lotutako gastuak estaltzera eta gizarteratzeko edo lan munduan sartzeko prozesu baten ondorioz sortutakoetara bideratzen dira. Aldundiak egiaztatu ahal izan dauenez, azken urteetan laguntza ekonomiko horreen eskatzaileen kopuruak behera egin dau nabarmen. 2012an “450 pertsona” onuradun izan ziran, eta 2016ko lehenengo bederatzi hilebeteetan “104” pertsona izan dira. 2013an, eskaria “387” eskaeratan geratu zan; 2014an “276” izan ziran; eta 2015ean “209raino” jatsi ziran.

Joera hori ikusita, Aldundiak laguntza ekonomiko horreek “barriri planteetea” erabagi dau, pertsona onuradunen eremua beste talde batzuetara be zabalduz, “genero indarkeriaren biktima diran emakumeei edo daborduko gurasoen etxetik kanpo bizi diran 23 urte arteko gazteei”. Diputatu andreak iragarri dauenez, 2017an beste Foru Dekretu bat onetsiko da. Araudia aldatzeko lan taldea osotuta dago daborduko.

Batzarretako taldeak bat etorri dira diputatu andregaz, gizarteratzera bideratzen diran laguntzen araudia aldatzea “preminazkoa” dala esatean, soslaia aldatu egin dalako. EH Bilduko lekuetatik, aldaketa horregaz batera diru-kopuru handiagora bideratzea eskatu dabe, zifrek kontrakoa esaten daben arren, “kaleko errealidadea beste bat dalako”, Josu Unanue bozeroaleak adierazo dauenez.

ETXE BAKO SEI PERTSONEK ETXEBIZITZEA DAUKIE, HABITAT BIZKAIA PROGRAMARI ESKER

Bizkaian etxe barik dagozan pertsoneri zuzenduta dagon Habitat Bizkaia programearen ebaluazinarako metodoa ezagutzeko Talde Mistoak eskatu dauen beste agerraldian Laespadak adierazo dauenez, une honetan “6 pertsona” dagoz daborduko Bizkaiko hainbat herritan, eta beste “14” “ebaluetan” dabilz, Bizkaian aurrera eroaten ari dan eta joan dan garagarrilean martxan jarri zan “House in first” (etxebizitzea lehenengo) filosofian oinarrituta dagon lehenengo programa pilotua osotzeko prozesuaren barruan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Etxe bako pertsoneri bizilekua emoteko erabilgarri dagon etxebizitza parkearen gainean galdetu dauen oposizinoari erantzunez, Laespadak esan dau “zortzi” lurraldeko hainbat udalerrik lagatakoak dirala, eta beste “hamabi”, barriz, merkadu pribadukoak.

Programea ebaluetako metodoari jagokonez, Laespadak esan dauenez, “barrizalea” izango da, esperientziaren diagnostiko “dinamikoa eta etenbakoa” egingo daelako eta, bere berbetan, horrek programan hobekuntzak sartzeko aukerea emongo dau, beharrezkoa izan ezker. Programaren onuradunek eta “erreferentziazko” erakundeek osotutako jarraipeneko batzordeak egingo dau ebaluazino hori.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
14/10/2016

La Diputación foral ha gastado la mitad de las ayudas para la inclusión social a 30 de septiembre

La diputada foral de Empleo, Incusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, ha comparecido esta mañana en las Juntas Generales de Bizkaia para informar de las ayudas económicas a la inclusión social concedidas este año, a petición del PP, así como del programa Habitat Bizkaia destinado a las personas sin hogar, en este caso a iniciativa del grupo Mixto.

Laespada ha anunciado que su departamento ha gastado ya el “49,41%” del presupuesto destinado a ofrecer ayudas económicas contra la exclusión social, de un total de “586.118,31” euros que se previeron para todo el año. Esta cifra confirma que este tipo de ayudas sigue su tendencia a la baja desde el año 2012 y que el motivo “principal” de esta deriva es el “cambio de perfil” de las personas que acceden a las mismas.

Como ha explicado Laespada, estas ayudas, incompatibles con la RGI, van dirigidas tanto a la cobertura de los gastos asociados a las necesidades básicas como a los derivados de un proceso de inclusión social o laboral. La Diputación ha constatado que en los últimos años el número de demandantes de estas ayudas económicas ha caído notablemente. De los “450 personas” beneficiarias en el año 2012, se ha pasado a las “104” de los primeros nueve meses de 2016. En 2013 la demanda se quedó en las “387” solicitudes; en 2014, fueron “276”; y en 2015 bajaron hasta las “209”.

Esta tendencia ha obligado a la Diputación a realizar un “replanteamiento” de estos apoyos económicos, pensando en abrir el abanico de personas beneficiarias a otros grupos como son “las mujeres víctimas de violencia de género o jóvenes emancipados con edades hasta los 23 años”. La diputada ha anunciado que en 2017 se aprobará un nuevo Decreto foral. Se ha constituido ya un grupo de trabajo para modificar la normativa.

Desde los grupos junteros han compartido con la diputada en que es “urgente” cambiar la normativa de ayudas para la inclusión social, ya que el perfil ha cambiado. Desde las filas de EH Bildu se ha pedido que este cambio venga acompañado incluso de mayor asignación económica, ya que, aunque las cifras digan lo contrario, la “realidad de la calle es otra”, ha señalado su portavoz Josu Unanue.

SEIS PERSONAS SIN HOGAR TIENEN TECHO GRACIAS AL PROGRAMA HABITAT BIZKAIA

En su otra comparecencia, solicitada por el grupo Mixto para conocer el método de evaluación del programa Habitat Bizkaia destinado a ofrecer un techo individual a las personas sin hogar de Bizkaia, Laespada ha señalado que, en estos momentos, “6 personas” se encuentran ya alojadas en diferentes localidades de Bizkaia y otras “14” están siendo “evaluadas” para completar el primer programa piloto bajo la filosofía del “House in first” (la vivienda, lo primero) que se desarrolla en Bizkaia y que arrancó en julio pasado.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

A preguntas de la oposición que preguntaba por el parque de viviendas disponible para ofrecer un techo a personas sin hogar, Laespada ha contestado que “ocho” han sido cedidas por distintos ayuntamientos del territorio y otras “doce” corresponden al mercado privado.

En cuanto al método de evaluación del programa, Laespada ha indicado que éste será “innovador” ya que se realizará un diagnóstico “dinámico y constante” de la experiencia que servirá, según ella, para introducir mejoras en el programa si fuera el caso. Una comisión de seguimiento formada por personas beneficiarias del programa y por entidades “de referencia” harán esta labor de evaluación.